

"Opus Cactus" Momix

Carta de presentación 7
Consejo de Administración y Dirección del Teatro Arriaga 9
Espectáculos 2003 13
ZINEBI 2003- Festival de cine 39
Colaboraciones 43
Estadísticas de asistencia y ocupación 47
Eventos desarrollados en alquiler 57
Infraestructura y servicios 61
Producciones propias del Teatro Arriaga 65
Contacto 69
Agradecimientos 71
Créditos 72

Aurkezpen-gutuna 7
Administrazio batzordea eta Arriaga antzokiaren zuzendaritza 9
2003ko Antzezpenak 13
ZINEBI 2003 - Zinema jaialdia 39
Kolaborazioak 43
Bertaratuen eta okupazioaren estatistikak 47
Alokairuan gauzatutako jarduerak 57
Azpiegitura eta zerbitzuak 61
Arriaga antzokiko produkzioak 65
Harremanak 69
Esker onak 71
Kredituak 72

Queridos amigos/as:

Un año más el Teatro Arriaga presenta su Memoria de Actividades. Queremos dar cuenta en ella de los resultados obtenidos durante el pasado año 2003 en un triple aspecto: cultural, social y económico.

El objetivo fundamental de una institución municipal como ésta es facilitar el desarrollo cultural de nuestra villa mediante el acercamiento de los espectáculos -de teatro, música, ópera, zarzuela, baile, canción, humor, etc... - del mayor interés. Este objetivo alcanza su cumplimiento social cuando la sociedad a la que nos dirigimos responde positivamente a esta oferta, es decir, cuando conseguimos congregar frente al espectáculo programado a un público efectivamente interesado. Hay un tercer dato a considerar: el económico. Porque aunque la cultura no es barata y su difusión implica un gasto tanto más importante cuanto más desarrollada y culta es la sociedad en la que nos desenvolvemos, ese gasto no puede ser ilimitado. Trabajamos con fondos públicos y su utilización debe estar justificada en función de los objetivos conseguidos.

En las páginas que siguen encontrarán pormenorizada noticia de todos los espectáculos ofrecidos y de sus resultados en cuanto a espectadores/as e ingresos económicos, así como diversos datos porcentuales, tablas y cuadros sinópticos que les darán una visión clara y detallada de nuestra actividad. Pero podemos adelantarles que los resultados han sido razonablemente satisfactorios, habiendo logrado que más de 225.000 personas nos visitaran a lo largo del año 2003.

Resultados satisfactorios que nos plantean -y es un tópico decirlo, pero un tópico que corresponde a la realidad- el reto de igualarlos o superarlos en el próximo ejercicio. A superar este reto están encaminados desde hace meses todos nuestros esfuerzos.

**Jon Sanchez Ibarluzea**
Presidente Efectivo del Teatro Arriaga
Concejal de Cultura

Lagun maiteok:

Hona non Arriaga Antzokiak, beste urte batez, bere Jardueren Txostena aurkezten duen. Eta bertan, iazko 2003an zehar lortutako emaitzen berri eman nahi dugu, hiru aldetatik begiratuta: kulturarenetik, gizartearenetik eta ekonomiarenetik.

Hau bezalako udal-erakunde baten helburu behinena gure herria kultura aldetik garatzea da, eta horretarako, interes handieneko ikuskizunetara bultzatzen du: antzerkira, musikara, operara, zartzuelara, dantzara, abestira, umorera, etab. Eta helburu hori gizartearen aldetik betetzen da, berari zuzentzen diogun eskaintzaren aurrean modu positiboan erantzuten duenean, hau da, programatutako ikuskizun baten aurrean, benetan interesatua dagoen jendea biltzea lortzen dugunean. Eta azkenik, hirugarren datua (ekonomiarena) izan behar dugu kontuan. Zeren eta, kultura berez merkea ez izan arren, eta bere hedapenak, mugitzen garen gizartea zenbat eta garatu eta kultuagoa izan, orduan eta gastu handiagoa eskatzen badu ere, gastu horrek ezin baitu mugagabea izan. Diru publikoarekin lan egiten dugu, eta bere erabilerak, lortzen diren helburuen heinean justifikatua izan behar du.

Ondorengo orrialdeetan, emandako ikuskizunen eta beren emaitzen informazio xehekatua aurkituko duzue ikusleei eta diru-sarrerei buruz, eta baita portzentajeei buruzko hainbat datu, taula, koadro sinoptiko, etab. ere, gure jardunaren ikuspegi argi eta xehekatu bat izan dezazuen. Nolanahi ere, aurrera diezazuekegu emaitza pozgarriak izan direla, izan ere 225.000 bisitari baino gehiago erakarri ditugu-eta 2003ko urtean zehar.

Emaitza pozgarriak, beraz, eta datorren ekitaldiari begira —ez dago esan beharrik ere— gutxienez berdintzeko, baina ahal bada gainditzeko, erronka egiten digutenak. Eta erronka horixe irabaztera bideratuak ditugu, zenbait hilabetetatik hona, gure ahalegin guztiak.

**Jon Sanchez Ibarluzea**
Arriaga Antzokiko presidente eragilea
Kultura zinegotzia



Ballet de Moscu

# CONSEJO DE ADMINISTRACIÓN Y DIRECCIÓN DEL TEATRO ARRIAGA

# ADMINISTRAZIO BATZORDEA ETA ARRIAGA ANTZOKIAREN ZUZENDARITZA

## RELACIÓN DE CONSEJEROS DEL TEATRO ARRIAGA / ARRIAGA ANTZOKIAREN KONTSEILARIAK

| | Consejo saliente / Irten den Kontseilua | Consejo entrante / Sartu den Kontseilua |
|---|---|---|
| **PRESIDENTE NATO / BEREZKO PRESIDENTEA** | Excmo. Sr. Don Iñaki Azkuna Urreta | Excmo. Sr. Don Iñaki Azkuna Urreta |
| **PRESIDENTE EFECTIVO / PRESIDENTE ERAGILEA** | Don José Luis Sabas Olabarría | Don Jon Sanchez Ibarluzea |
| **CONSEJEROS / KONTSEILUKIDEAK** | Don José Cruz Cirion Sanz<br>Don Xabier Lizaso Lamsfus<br>Don José Miguel Carballal García | Doña Ana María de Castro Rubalcaba<br>Doña Begoña Ibarra Zuazo<br>Doña Virginia Aguado Arnaiz<br>Don Iñaki Arregi Etxeberria |
| | Doña Margarita Santodomingo Monesterio<br>Don Jesús Sanz Salamanca<br>Don Eduardo José Portero Delgado<br>Doña Juana Iturmendi Maguregui | Doña Juana María Iturmendi Maguregui<br>Don Luis Hermosa Santa María<br>Doña Beatriz Calvo Fernández<br>Don Jesús Sanz Salamanca |
| | Doña Begoña Gil Llanos<br>Don Fernando García de Cortazar | Don Fernando García de Cortázar<br>Don José María Oleaga Zalvidea |
| | Don Francisco Javier Olazaran Sagardui<br>Don Imanol Agirre Etxebarria | Don Txema Gonzalo Casal |
| | Doña Susana Gómez Pérez | Don Francisco Javier García Diez |
| | Don Txema Gonzalo Casal | |
| **DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA / BIZKAIKO FORU ALDUNDIA** | Ilma. Sra. Doña Ana Madariaga | Ilma. Sra. Belén Greaves Vadillo |

## PERSONAL DEL TEATRO ARRIAGA / Al 31-12-03 — ARRIAGA ANTZOKIAREN LANGILEAK / 03-12-31an

| NOMBRE / IZENA | PUESTO DE TRABAJO / LANPOSTUA |
|---|---|
| Ibon Aranbarri Etxaburu | Director General / Zuzendari nagusia |
| Miren García Bernaola | Ayudante de dirección / Zuzendaritza laguntzailea |
| José Ignacio Malaina Sánchez | Director de Servicios Generales / Zerbitzu Orokorreko Zuzendaria |
| Natividad Alonso Alonso | Auxiliar Administrativo de RR.HH. / Giza Baliabideetarako Administrari Laguntzailea |
| Jesús Mª Rico Hernández | Auxiliar Administrativo-Contabilidad/ Administrari Laguntzailea-Kontabilitatea |
| Itziar Olalde Rementería | Técnico Auxiliar / Teknikari Laguntzailea |
| Fernando Seisas López | Técnico Auxiliar / Teknikari Laguntzailea |
| Jon Barañano Iraider | Técnico Auxiliar / Teknikari Laguntzailea |
| Javier Peñas Peñas | Técnico Auxiliar / Teknikari Laguntzailea |
| María Teresa Perez Fernández | Técnico Auxiliar / Teknikari Laguntzailea |
| Sara Villa Arroyo | Acomodador/a / Aretozaina |
| Miguel Calle Herrero | Acomodador/a / Aretozaina |
| Daniel Diéz González | Acomodador/a / Aretozaina |
| Jose Manuel Sanchez San Juan | Acomodador/a / Aretozaina |
| Antonio Soto Ibánez | Acomodador/a / Aretozaina |
| Andoni Olivares Ijalba | Director Programación y Operaciones / Programazio eta Operazioetako Zuzendaria |
| Izaskun Etxebarria Goikoetxea | Responsable de Programación / Programazioko Arduraduna |
| María Dolores del Campo Serrano | Técnico Programación / Programazioko Teknikaria |
| Virginia Araico Muñecas | Técnico Auxiliar / Teknikari Laguntzailea |
| Ana Sofia Amann Mutiozabal | Técnico Auxiliar / Teknikari Laguntzailea |
| Jose Antonio Ochoa Oribe | Responsable de Operaciones / Operazioetako Arduraduna |
| Joseba Erkiaga Cilloniz | Regidor / Errejidorea |
| Oscar Armendariz Lucarini | Responsable Sastrería / Jostundegiko Arduraduna |
| Javier Iturrioz Uriondo | Tramoyista / Tramoiaria |
| Carlos Albizuri Martínez | Tramoyista / Tramoiaria |
| Ibon Andueza Elorza | Tramoyista / Tramoiaria |
| Angel Mª Alonso García | Electricista / Argiketaria |
| Antonio de la Cruz Arias | Electricista / Argiketaria |
| Gorka Ochoa Gorostiza | Electricista / Argiketaria |
| Fco. Javier Saiz Blanco | Electricista / Argiketaria |
| Joseba Urkizu Villalain | Ayudante de tramoyista / Tramoiari Laguntzailea |
| Fco. Javier Izagirre Goikolea | Ayudante de tramoyista / Tramoiari Laguntzailea |
| Germán Cundín Pérez | Ayudante de tramoyista / Tramoiari Laguntzailea |
| Mikel Ortiz Moral | Ayudante de tramoyista / Tramoiari Laguntzailea |
| María Ángeles Olea Bilbao | Secretaria General Festival de Cine / Ziname Jaialdiko Idazkaria Orokorra |
| Lucía Goitia Calzada | Técnico Auxiliar / Teknikari Laguntzailea |



"Peter Pan" Ananda Dansa

## ESPECTÁCULOS 2003

## 2003ko IKUSKIZUNAK

## "10"
### 30 y 31 de enero

Bajo la dirección de Tamzin Townsend, Juan Luis Galiardo, Borja Elgea, José Luis Torrijo, María Elías y Patricia Ércole dan vida a los personajes de "10". Un texto excelente -que habla de lo difícil que es cambiar cuando la personalidad está ya forjada- una estructura muy bien desarrollada y el gran trabajo interpretativo de Galiardo son los ingredientes del éxito de este montaje.

## Luces de Bohemia
### del 6 al 16 de febrero

Helena Pimenta dirige a la compañía Ur Teatro en una nueva adaptación del clásico de Valle Inclán. Los 15 integrantes de la Compañía, encabezados por Ramón Barea, dan vida a los 52 personajes que recoge el texto original. Un gran ejercicio interpretativo, que congregó a 6.173 personas, alzándose entre los cinco espectáculos más vistos de 2003.



*10.*



*Luces de Bohemia.*

## "10"
### urtarrilaren 30a eta 31a

Tamzin Townsend-en zuzendaritzapean, "10"-eko pertsonaiei bizia ematen die Juan Luis Galiardo, Borja Elgea, José Luis Torrijo, María Elías eta Patricia Ércole-k. Testu benetan ederra -nortasuna jadanik garatua dagoenean aldatzea zein zaila den jorratzen duena-, modu ezin hobean landutako egitura eta Galiardo-ren interpretazio-lan paregabea dira muntaketa honen arrakastaren arrazoiak.

## Luces de Bohemia
### otsailaren 6tik 16ra

UR Teatro konpainiaren zuzendari den Helena Pimenta-k aurkeztu zuen Inclán-en klasikoaren egokitzapen berri hau.  Konpainia osatzen duten 15 kideek, Ramon Barea buru dutela, ematen diete bizia jatorrizko testuan jasotzen diren 52 pertsonaiei. Interpretazio-ariketa handia benetan, 6.173 pertsona bildu zituen-eta, 2003ko bost ikuskizun ikusienen kategoria lortuz.

## El club de la corbata
### del 4 al 9 de marzo

La adaptación del guión del autor francés Fabrice Roger-Lacan llegaba al Arriaga de la mano del director Pep Antón Gómez. Una comedia ligera que deviene en tragicomedia grotesca cuando la amistad entre dos socios (Carlos Sobera y Marcial Álvarez) se ve truncada por la pertenencia de uno de ellos a “El Club de la Corbata”, y el deseo del otro de convertirse también en socio del peculiar club.

## Peribáñez y el comendador de Ocaña
### del 13 al 15 de marzo

José Luis Alonso de Santos dirige a la Compañía Nacional de Teatro Clásico en una versión adaptada a los tiempos actuales del clásico de Lope de Vega.  La vida campesina es el telón de fondo de una historia de amor, celos y venganza que supone una reflexión sobre la justicia, el honor y los contrastes del orden estamental.



*El club de la corbata.*

## El club de la corbata
### martxoaren 4tik 9ra

Fabrice Roger-Lacan-en gidoiaren egokitzapen hau Pep Antón Gómez zuzendariaren eskutik etorri zen Arriagara. Komedia arin bat azkenean tragikomedia groteskoa bihurtzen da bi bazkideren (Carlos Sobera eta Marcial Álvarez-en) arteko adiskidetasunak porrot egiten duenean, horietako bat “Gorbataren Klubekoa” delako, eta beste laguna ere elkarte bitxi horretako bazkide egin nahi duelako.

## Peribáñez y el comendador de Ocaña
### martxoaren 13tik 15era

Antzerki Klasikoaren Konpainia Nazionalak José Luis Alonso de Santosen zuzendaritzapean jardun zuen gaur egungo denboretara egokitutako Lope de Vega klasikoaren lan honetan.  Nekazari-bizitza dago maitasun, jelosia eta mendekuzko istorio honen funtsean, ezarritako estamentu-ordenaren justiziari, ohoreari eta kontrasteei buruzko gogoeta egitera bultzatuz.



*Peribañez y el comendador de Ocaña.*


*Escenas de una ejecución.*

## Escenas de una ejecución
### del 4 al 6 de abril

La compañía del Teatro Nacional de Catalunya, dirigida por Ramón Simó, lleva a escena la obra más reconocida y popular del dramaturgo contemporáneo Howard Barker. La versión del escritor Quim Monzó saca todo el jugo dramático a la historia de una pintora veneciana transgresora y disidente en el siglo XVII.

## El rey Lear
### del 10 al 12 de abril

La compañía Teatro de la Abadía presentaba en el Arriaga una adaptación contemporánea del clásico de Shakespeare, "El Rey Lear". El alemán Hansgünther Heyme, apoyado en la traducción de Antonio Fernández Lera, dirige este drama de locura, dolor y destrucción, protagonizado magistralmente por el actor Helio Pedregal.


*El rey Lear.*

## Escenas de una ejecución
### apirilaren 4tik 6ra

Teatro Nacional de Catalunya konpainiak, Ramón Simó-ren zuzendaritzapean, Howard Barker antzerkigile garaikidearen lanik aintzatetsi eta ezagunena ekarri digu agertokira. Quim Monzó idazlearen bertsioak, duen zuku dramatiko guztia ateratzen dio XVII. mendeko emakume margolari veneziar lege-hausle eta disidentearen istorioari.

## El rey Lear
### apirilaren 10etik 12ra

Teatro de la Abadía konpainiak Shakespeare-ren klasikoetako baten —"El Rey Lear"en— egungo egokitzapen bat aurkeztu zuen. Hansgünther Heyme alemanak, Antonio Fernández Lera-ren itzulpenean oinarrituta, eromen, samintasun eta hondamenezko drama hau zuzendu zuen, Helio Pedregal aktoreak maisu moduan interpretatuta.



*La caída.*

## La caída
7 de mayo

La compañía valenciana Moma-Teatre presentó en nuestro escenario una nueva versión de la novela "La Caída" de Albert Camus. Adaptado al teatro por Rodolf Sirera y dirigido por Carles Alfaro, el monólogo interpretado por Francesc Orella cuenta la historia de una caída narrada en primera persona: desde el éxito, la cima y una presunción de felicidad, hasta el abismo y el infierno de la culpa.

## Combate de negro y de perros
del 29 al 31 de mayo

El racismo y el colonialismo son los ejes sobre los que gira esta obra del dramaturgo francés Bernard-Marie Koltès. La historia cuenta la muerte de un joven obrero negro en una empresa extranjera afincada en su país. Su hermano tratará de recuperar el cadáver, pero los capataces blancos hacen todo lo posible por evitarlo. Todo un ejercicio dramático de la compañía vasca Maskarada.

## La caída
maiatzaren 7a

Moma-Teatre konpainia valentziarrak Albert Camus-en "La Chute" nobelaren bertsio berri bat aurketu zuen gure agertokian. Rodolf Sirera-k antzezteko moldatutako eta Carles Alfaro-k zuzendutako bakarrizketa hau Francesc Orella-k interpretatu zuen, lehen pertsonan kontatutako gainbeherako baten modura: arrakastaren gailur eta zorionaren presuntziotik, erruaren osin eta zoritxarraren infernuraino.

## Combate de negro y de perros
maiatzaren 29tik 31ra

Arrazakeria eta kolonialismoa dira Bernard-Marie Koltès dramagile frantsesaren lan honetako ardatzak Istorioa gertatzen den herrialdean finkatutako enpresa atzerritar batean hil zen langile beltz gazte baten heriotza kontatzen zaigu. Haren anaia gorpua berreskuratzen saiatuko da, baina langilezain zuriak senperrenak eta bost egiten ahaleginduko dira hori eragozteko. Maskarada euskal konpainiaren lan dramatiko bikaina.



*Combate de negro y de perros.*

## Defendiendo al cavernícola
del 18 al 24 de agosto

El músico, cantante, autor y director teatral, Nancho Novo explora humorísticamente la conocida como "guerra de sexos", presente en la sociedad desde la prehistoria, con el monólogo "Defendiendo al cavernícola". El texto de Rob Becker, dirigido en esta ocasión por Marcus Van Wachtel, ha triunfado en diez países y ha sido traducido a ocho idiomas.

## Ines desabrochada
del 27 de agosto al 7 de septiembre

El director vasco Pedro Olea firmó un debut teatral de lujo al frente del último texto de Antonio Gala en el que retoma la historia de "Don Juan" y nos presenta a una "Inés desabrochada" que habla de su amor entre sarcasmos y contradicciones risueñas. Todo un duelo interpretativo entre dos grandes de la escena, Concha Velasco y Nati Mistral, que logró conquistar al público bilbaíno, convirtiéndose en el tercer espectáculo más visto de toda la temporada.



*Defendiendo al cavernícola.*



*inés desabrochada.*

## Defendiendo al cavernícola
abustuaren 18tik 24ra

Nacho Novo musikari, abeslari eta antzerki-zuzendariak modu umoretsuan arakatzen du historiaurretik bertatik gizakiengan eman izan den "sexu arteko gerra" delakoa, "Defendiendo al cavernícola" bakarrizketaren bidez. Rob Becker-en testuak, kasu honetan, Marcus Van Wachtel du zuzendari; arrakasta handia lortu du hamar herrialdetan, eta zortzi hizkuntzatara itzulia izan da.

## Ines desabrochada
abustuaren 27tik irailaren 7ra

Pedro Olea zuzendari euskaldunak luxuzko antzerki-estreinaldi bat izan zuen Antonio Galaren azken testu honekin. "Don Juan"-en istorioa jorratzen da beste behin lan honetan, bere maitasunaz algara eta kontraesan irritsu artean hitz egiten digun "Ines botoi-askatu" batekin. Bi antzezlari erraldoiren (Concha Velasco eta Nati Mistraen) arteko interpretazio-borroka oso bat da; gorputz-arima irabazi zuen Bilboko publikoa, izan ere zerbaitegatik bihurtu baitzen denboraldi guztiko hirugarren ikuskizun ikusiena.



*El sueño de una noche de verano.*

## El sueño de una noche de verano
del 12 al 13 de septiembre

Uno de los directores más reputados de España, Miguel Narros, dirige este nuevo montaje que cuenta con la adaptación del dramaturgo y novelista Eduardo Mendoza y la escenografía de Andrea D'Odorico, uno de los más importantes renovadores de este arte. Verónica Forqué y Vladimir Cruz protagonizan esta historia de W. Shakespeare, que bebe de lo real y de lo onírico.

## Como en las mejores familias
del 17 al 28 de septiembre

Un extraordinario guión de Agnès Jaoui y Jean-Pierre Bacri y un reparto de actores españoles de lujo, dirigidos por Manuel Dueso, son los ingredientes que han logrado que "Como en las mejores familias" se convirtiera en la obra de teatro más vista de 2003 en el Teatro Arriaga. La historia de una cena familiar salpicada de diálogos divertidos e irónicos congregó cerca de 15.000 espectadores.



*Como en las mejores familias.*

## El sueño de una noche de verano
irailaren 12tik 13ra

Espainiako zuzendaririk ospetsuenetako batek, Miguel Narros-ek, zuzentzen du muntaia berri hau. Eduardo Mendoza antzerkigile eta nobelagileak egokitu du lana, eta Andrea D'Odorico eszenografoak, arte honetako berritzailerik handienetako batek, taularatu du. Eta Forqué eta Vladimir Cruz dira bizitza errealetik eta onirikotik edaten duen W. Shakespeare-ren istorio honetako protagonistak.

## Como en las mejores familias
irailaren 17tik 28ra

Agnès Jaoui eta Jean-Pierre Bacri-ren aparteko gidoia, luxuzko aktore espainol batzuek interpretatuta, Manuel Dueso-ren zuzendaritzapean. Horiexek dira "Como en las mejores familias" lanaren osagai nagusiak, Arriagan 2003an gehien ikusi den antzezlan bihurtu dutenak. Familiarteko afari baten istorioak, ironiaz betetako solasaldi pipertsuekin zipriztinduta, 15.000 ikusle inguru bildu zituen.


*Las bicicletas son para el verano.*

## Las bicicletas son para el verano
urriaren 15tik 19ra

Luis Olmos-en zuzendaritzapean hamabost aktorek (guztien artean Gerardo Malla nabarmentzen da) osatutako talde bikain batek ematen dio bizia Fernando Fernán-Gómez-en lan klasiko moderno honi. Estreinatu zenetik hogei urte pasatu badira ere, benetako zirrarak sortzen jarraitzen du testuak ikusleen artean.

## La brisa de la vida
urriaren 23tik 26ra

Amparo Rivelles eta Nuria Espert-ek, hau da, Espainiako antzerki-munduko bi erraldoik, benetako interpretazio-eskola bat eman zuten gure agertokian, Lluís Pasqual-en zuzendaritzapean. Testu dibertitua, ironikoa, ziztadatsua, poetikoa, literarioa eta zuzenekoa, gizon berak mespretxuz abandonatutako mundu kontrajarrietatik datozen bi emakumeren istorioa kontatzen duena.

## La tienda de la esquina
azaroaren 6tik 9ra

“La tienda de la esquina” antzerkia, Parisen publikoaren aldetik lortutako arrakastak bermatuta etorri zen Bilbora. Han hiru urtez iraun zuen Montparnasse antzokian, eta bost Molière sari jaso zituen. Bere jatorrizko sortzaile Jean Jacques Zilbermann-ek zuzendutako muntaiak, J.J. de Arteche-ren egokitzapenarekin eta aparteko aktore-zerrendarekin, Frantziako hiriburuan estreinatu zenean erakutsi zuen liluratzeko xarma eta ahalmen guztia mantendu zuen hemen ere.

## Las bicicletas son para el verano
del 15 al 19 de octubre

Bajo la dirección de Luis Olmos, un equipo de quince actores, entre los que merece destacar a Gerardo Malla, dan vida a esta obra de Fernando Fernán-Gómez que es ya un clásico moderno. Pese a que han pasado veinte años desde su estreno, el texto sigue agitando las emociones del espectador.

## La brisa de la vida
del 23 al 26 de octubre

Amparo Rivelles y Nuria Espert, dos grandes de la escena española, ofrecieron en nuestro escenario, bajo la dirección de Lluís Pasqual, un auténtico recital interpretativo. Un texto divertido, irónico, punzante, poético, literario y directo, que cuenta la historia de dos mujeres de mundos antagónicos, despechadas por un mismo hombre.

## La tienda de la esquina
del 6 al 9 de noviembre

La versión teatral de “La tienda de la esquina” llegó a Bilbao avalada por el éxito de público cosechado en París, donde permaneció durante tres años en el teatro Montparnasse y recibió cinco premios Molière. El montaje dirigido por su creador original Jean Jacques Zilbermann, con la adaptación de J.J. de Arteche y un reparto excepcional, recoge todo el encanto y la capacidad de seducción del estrenado en la capital francesa.


*La brisa de la vida.*



*Cristina Hoyos*

## Ballet de Cristina Hoyos
del 8 al 12 de enero

Bailaora desde los 12 años y pareja de Antonio Gades durante dos décadas, creó su propia compañía en 1989, con la que ha recorrido el mundo siendo premiada y aclamada por los públicos más diversos. Cristina Hoyos, una figura consagrada dentro del flamenco, presentó en el Arriaga “Tierra adentro”, un espectáculo inspirado en la vida del pueblo minero andaluz.

## Compañía Juan Antonio Urbeltz
23 Febrero

Tras cuarenta años indagando en las raíces de la danza y del folklore del País Vasco, Juan Antonio Urbeltz presentaba en nuestro escenario “Pas de Basque”. El autor navarro plantea, bajo la dirección artística de Marian Arregi, un espectáculo de danza que gira sobre tres ejes: el desafío, el destino y el carnaval.

## Cristina Hoyos-en Baleta
urtarrilaren 8tik 12ra

Cristina Hoyos hamabi urtetatik izan da "bailaora", eta Antonio Gades-en dantzako bikotekidea bi hamarraldi osotan. 1989an bere talde propioa sortu zuen, eta horrekin mundu osoan barrena ibili da, sari ugari eta jendemolde desberdinenen txaloak jasoz. Flamenkoaren munduko figura sagaratu honek “Tierra Adentro” aurkeztu zuen Arriagan, Andaluziako marinelherriaren bizitzan oinarritutako ikuskizun bat alegia.

## Juan Antonio Urbeltz Konpainia
otsailaren 23a

Euskal dantza eta folklorearen sustraietan berrogei urtez arakatzen jardun ostean, “Pas de Basque” aurkeztu zuen Juan Antonio Urbeltzek gure agertokian. Nafar autore honek, Marian Arregiren zuzendaritza artistikopean, hiru ardatzen —hau da, desafioaren, patuaren eta inauteriaren— inguruan mugitzen den dantza-ikuskizun bitxi bat aurkeztu zigun.



*"Pas de Basque".*



*Ballet Nacional de España.*

## Ballet Nacional de España
27 de febrero / 1 y 2 de Marzo

Dirigido por Elvira Andrés, el Ballet Nacional de España recuperaba íntegramente la adaptación coreográfica que Antonio Gades hizo del clásico de Lope de Vega, Fuenteovejuna. La compañía de danza presentó también en Bilbao otros montajes de su repertorio como el “Concierto de Aranjuez”, “A mi aire”, “De azabache y plata”, “Entreverao”, “Estampío”, “Mujeres” y “Grito”.

## Ballet de Zurich
21 y 22 de Marzo

Los aficionados a la danza clásica pudieron disfrutar de nuevo en el Arriaga del Ballet de Zurich, una de las mejores compañías del mundo que consolidó su prestigio bajo la dirección del reputado Heinz Spoerli. La representación se inició con “Allegro brillante” del revolucionario coreógrafo George Balanchine. El dueto de H. Van Manen, “Sarcasms”, y dos piezas del propio Spoerli, “Nocturnes” y “Quintett”, cerraron el magnífico programa.

## Espainiako Balet Nazionala
otsailaren 27a / martxoaren 1a eta 2a

Elvira Andrés-en zuzendaritzapean, Antonio Gades-ek Lope de Vegaren Fuenteovejunari egindako koreografiaren egokitzapen oso-osoa berreskuratu du Espainiako Balet Nazionalak. Dantza-konpainiak honek aurkeztu zizkigun Bilbon beste errepertorioko beste hainbat muntaia ere, esate baterako, “Concierto de Aranjuez”, “A mi aire”, “De azabache y plata”, “Entreverao”, “Estampío”, “Mujeres” eta “Grito”.

## Zurich-eko Baleta
martxoaren 21a eta 22a

Dantza klasikoaren zaleek Zurich-eko Baletaz gozatzeko aukera ederra izan zuten behin berriz, izan ere, munduko konpainiarik onenetakoa baita bera, eta bere ospe handia areagotu baino ez zuen egin hemen Heinz Spoerli entzutetsuaren zuzendaritzapean. George Balanchine koreografo iraultzailean “Allegro brillante”-rekin hasi zen ikuskizuna. Eta H. Van Manen-en “Sarcasms” duetoarekin eta Spoerli-ren beraren bi piezarekin (“Nocturnes” y “Quintett”-ekin) eman zitzaion amaiera programa bikain honi.



*Ballet de Zurich.*



*Peter Pan.*

## Peter Pan
del 23 al 27 de abril

La compañía de danza Ananda Dansa traía a Bilbao una versión para ballet de "Peter Pan" de James M. Barrie, que logró seducir a pequeños y mayores. Toni Aparisi, en el papel del joven habitante del país de "Nunca Jamás", y Susana Rodrigo, como la dulce Wendy, son los dos protagonistas de esta historia llena de magia y locas aventuras.

## Rafael Amargo
2 y 3 de Mayo

"Poeta en Nueva York" es un espectáculo multidisciplinar que fusiona lo más tradicional del flamenco con tendencias de baile contemporáneas. Creado por el bailarín y coreógrafo Rafael Amargo, este montaje basado en los poemas del escritor granadino F.G.Lorca, combina con maestría danza, poesía y música en directo de la compositora, cantante y pianista Edith Salazar.

## Peter Pan
apirilaren 23tik 27ra

Ananda Dansa dantza-taldeak James M. Barrie-ren "Peter Pan" baleterako bertsio bat ekarri zuen Bilbora, eta txikiak eta handiak liluratzeko grazia lortu. Toni Aparisi-k egiten du "Inoiz Ez" herriko biztanle gaztearen papera, eta Susana Rodrigo da Wendy goxoa. Bi horiek dira, bada, magiaz eta abentura eroez betetako istorio honetako protagonistak.

## Rafael Amargo
maiatzaren 2a eta 3a

"Poeta en Nueva York" ikuskizun multidiziplinar bat da, flamenkoaren alderdirik tradizionalena dantza-joera garaikideekin nahasten duena. Rafael Amargo dantzari eta koreografoak sortutako muntaia hau, F. G. Lorca granadar idazleak idatzitako poemetan oinarritua dago, eta maisutasun osoz konbinatzen ditu Edith Salazar musikagile, abeslari eta piano-jotzailearen zuzeneko dantza, poesia eta musika.



*Rafael Amargo.*

## Momix
del 9 al 11 de Mayo

Creatividad y belleza son las dos características que definen el espectáculo que presentó en el Arriaga la compañía Momix, Opus Cactus. Creado por el coreógrafo Moses Pendleton, este montaje estaba inspirado en el paisaje desértico y nos dejó imágenes de una increíble plasticidad.

## Antonio Canales
16 y 17 de mayo

El bailaor y coreógrafo sevillano Antonio Canales llega a Bilbao con un doble programa. El espectáculo “Minotauro” mezcla la temática taurina, ya abordada por el bailaor en “Torero”, con la mitológica. Mientras, “Suite Flamenca” trata de comunicar la desnudez del flamenco, a través de sus mejores intérpretes.



*Momix.*



*Antonio Canales.*

## Momix
maiatzaren 9tik 11ra

Sormena eta edertasuna dira Momix taldeak Arriagan aurkeztu zuen Opus Cactus ikuskizuna definitzen duten bi ezaugarriak. Moses Pendleton koreografoak sortua izanik, basamortuko paisaian oinarritua zegoen muntaia hau, eta ikaragarrizko plastikotasuneko irudiak utzi zizkigun.

## Antonio Canales
maiatzaren 16a eta 17a

Antonio Canales bailaore eta koreografo sevillarrak programa bikoitza ekarri zuen Bilbora. "Minotauro" izeneko ikuskizunak zezenen gaia tartekatzen du, "Torero" izeneko ikuskizunean mitologiarekin egin zuen bezala. Bien bitartean, "Suite Flamenca" flamenkoaren biluztasuna islatzen saiatzen da, bere interprete onenekin.

## Julio Bocca y el Ballet Argentino
### del 4 al 6 de Junio

Julio Bocca llegaba a Bilbao con su compañía, el Ballet Argentino, para presentar un auténtico tributo al tango tradicional. Acompañado por la consagrada Cecilia Figaredo, cinco bailarines, dos magníficos cantantes de tango y una orquesta en directo, Bocca desarrolla las coreografías de Ana María Stekelman. Un espectáculo donde su reconocido virtuosismo se pone al servicio de la sensualidad.

## Sara Baras
### del 3 al 8 de Diciembre

Sara Baras, una de las figuras femeninas con mayor personalidad, atractivo y relevancia de la danza española transportó a nuestro escenario el alma de la Mariana Pineda de Lorca, con sus principales atributos: la pasión y la rebeldía, hechos flamenco. Bajo la dirección de Lluis Pasqual, gran conocedor del teatro lorquiano, y con la música de Manolo Sanlucar, la bailaora logró seducir al público y a la crítica, convirténdose en el espectáculo de danza más visto de 2003.



*Julio Bocca.*



*Sara Baras.*

## Julio Bocca eta Ballet Argentino
### ekainaren 4tik 6era

Julio Bocca tradiziozko tangoari benetako omenaldi bat egiteko asmoz etorri zen Bilbora Ballet Argentino konpainiarekin. Cecilia Figaredo eta beste bost dantzari eta bi tango-abeslari zein baino zein hoberekin, eta zuzeneko orkestra bat lagun duela, Ana María Stekelman-en koreografiak erakusten ditu Bocca-k, Stekelman-en birtuosismo aintzatetsia sentsualtasunaren mende jartzen duen ikuskizun batean.

## Sara Baras
### abenduaren 3tik 8ra

Dantza espainolak gaur egun duen nortasun, erakarmen eta ospe handieneko emakume honek Lorca-ren Mariana Pinedaren arima ekarri zigun gure agertokira, bere bi atributu nagusiekin, hots, grina eta errebeldiarekin, flamenko bihurtuta. Lorcaren antzerki-lana ondo baino hobeto ezagutzen duen Luis Pasqual-en zuzendaritzapean, eta Manolo Sanlucar-en musikarekin, publikoa eta kritika liluratzea lortu zuen bailaorrak, izan ere bera izan baitzen 2003ko dantza-ikuskizunik ikusiena.



Los sobrinos del Capitán Grant.

## Los sobrinos del Capitán Grant
### del 3 al 6 de enero

Los sobrinos del capitán Grant es una zarzuela en cuatro actos, que fue estrenada en Madrid el 25 de agosto de 1877. Maribel Belastegui asume la puesta en escena del montaje que Luis Iturri hizo de este clásico de las representaciones navideñas. Una producción del Teatro Arriaga, bajo la dirección musical de Gorka Sierra, y con la participación del Coro Euskeria de la Sociedad Coral de Bilbao y la Bilbao Orkestra Sinfonikoa.

## El huésped del sevillano
### del 24 al 26 de enero

Bajo la dirección musical de Luis Remartínez y la dirección escénica de Gustavo Tambascio se presentó en Bilbao la zarzuela “El huésped del sevillano” de Jacinto Guerrero, uno de los principales autores contemporáneos de este género. El tenor Ricardo Muñiz y la soprano Ana Luisa Espinosa protagonizan esta historia de aventuras y amor.



El huésped del sevillano.

## Los sobrinos del Capitán Grant
### urtarrilaren 3tik 6era

“Los sobrinos del capitán Grant”, lau ekitalditan banatutako zartzuela bat da, 1877ko abuztuaren 25ean estreinatua, Madrilen. Maribel Belastegui arduratu da Gabonetako antzezpen klasiko honi Luis Iturrik egin zion muntaia taularatzeaz. Arriaga Antzokiaren produkzio bat da, Gorka Sierra-ren musika-zuzendaritzapean, eta Bilboko Koral Elkarteko Euskeria abesbatzak eta Bilbao Orkestra Sinfonikoak ere parte hartu dute bertan.

## El huésped del sevillano
### urtarrilaren 24tik 26era

Gaur egungo zartzuela munduan izenik gailenetakoa dugun Jacinto Guerrero-ren “El huésped del sevillano” lanak Luis Remartínez izan zuen Bilbon musika-zuzendari, eta Gustavo Tambascio eszena-zuzendari. Ricardo Muñiz tenorra eta Ana Luisa Espinosa sopranoa dira abentura eta maitasunezko istorio honen protagonistak.



*La pequeña flauta mágica.*

## La pequeña flauta mágica
### del 18 al 22 de febrero

El Gran Teatre del Liceu produce esta adaptación para niños de la obra de Mozart “La flauta mágica”, bajo la dirección escénica de Joan Font (Comediants). El montaje, que mantiene la esencia dramática del original, es un auténtico recorrido por el mundo de la imaginación, la fantasía, la simulación y el sueño.

## La Generala
### del 16 al 24 de agosto

“La Generala”, obra de uno de los grandes músicos del siglo XX, Amadeo Vives, ha sido producida y dirigida por dos de los componentes del grupo El Tricicle. El argumento es el de una comedia de enredo, casi un vodevil, donde la destronada familia real de un país imaginario se entrega a la tarea de casar al príncipe heredero. Un espectáculo fascinante y divertido.



*La Generala.*

## La pequeña flauta mágica
### otsailaren 18tik 22ra

Gran Teatre del Liceu-k taularatu du Mozarten “Xirula magikoa” lanaren haurrentzako bertsio hau, Joan Font-en (Comediants) agertoki-zuzendaritzapean. Jatorrizkoaren oinarri dramatikoa mantentzen duen muntaia hau, irudimen, fantasia, simulazio eta ametsen mundutik barrenako ibilaldi oso bat da.

## La Generala
### abuztuaren 16tik 24ra

XX. mendeko musikagile handienetako baten, Amadeo Vives-en, lana dugu “La Generala”, eta El Tricicle taldeko bi kidek produzitu eta zuzendu dute. Endredozko komedien moduko argumentua da, ia vodevil-a; irudizko herrialde bateko errege-familia tronutik kendu dute, eta oinordeko printzea ezkontzeko zereginari ekiten diote. Ikuskizun liluragarri bezain dibertigarria.

## Orfeo ed Eurídice
del 10 al 12 de octubre

Joan Font, director artístico y cofundador de Comediants es el responsable de la puesta en escena de la ópera de Ch. W. Gluck, basada en el mito clásico de Orfeo y Eurídice. Una ópera barroca y un montaje arriesgado, desde la perspectiva del espectador contemporáneo, que se saldó con un gran éxito de público y crítica.

## Radamisto
4 de noviembre

El Teatro Arriaga acogía por primera vez en Bilbao una de las óperas más importantes de G. F. Haendel: "Radamisto". Siete solistas especializados en la interpretación del arte vocal antiguo, entre ellos el contratenor vasco Carlos Mena, protagonizan esta producción. Al frente de la orquesta Wiener Akademie se presenta, en su faceta de director, el reputado organista Martin Haselböck.

## Il buon marito
14 de noviembre

El Teatro Arriaga ofrecía a su público la posibilidad de disfrutar de un título y un autor poco habituales, "Il buon marito" de Georg Anton Benda. Una joya musical y escénica para los amantes de la música del siglo XVII, con la interpretación magistral de los solistas Isabel Monar y Andreas Karasiak, acompañados por la Wiener Akademie.



*Il buon marito.*



*Radamisto.*

## Orfeo ed Eurídice
urriaren 10etik 12ra

Joan Font, Comediants taldearen zuzendari artistikoa eta fundatzaileetako bat, da Orfeo eta Euridizeren mito klasikoan oinarritutako CH. W. Gluck-en opera hau taularatzeaz arduratu dena. Opera hau, gaur egungo ikuslearen aldetik begiratuta, barrokoa da eta muntaia ausartekoa, baina hala ere, izugarrizko arrakasta lortu zuen publikoaren eta kritikaren aldetik.

## Radamisto
azaroaren 4a

Arriaga Antzokiak lehenbiziko aldiz ireki zizkion bere ateak G. F. Haendel-en operarik garrantzitsuenetako bati: "Radamisto"-ri. Antzinako ahots-artearen interpretazioan espezializatutako zazpi bakarlari —horien artean Carlos Mena euskaldun kontratenorra— dira produkzio honen protagonistak. Wiener Akademie orkestraren aitzinean zuzendaritza-lanetan, berriz, Martin Haselböck organo-jotzaile ospetsuak jardun zuen.

## Il buon marito
azaroaren 14a

Arriaga Antzokiak ohiz kanpoko egile eta lan batez, hau da, Georg Anton Benda-ren "Il buon marito" lanaz, gozatzeko aukera eman zien ikusleei. Musikaren eta agertokiaren aldetik begiratuta, benetako bitxi bat da hau XVII. mendeko musika maite dutenentzat. Isabel Monar eta Andreas Karasiak bakarlari paregabeak dira bertako protagonistak Wiener Akademie-ren laguntzarekin.

## La Pasión según Don Quijote
14 de enero

Sobre una pantalla se proyectaban distintas secuencias fotográficas a medida que la Slovack Sinfonieta, dirigida por Juan de Udaeta, interpretaba una selección musical desde el barroco (Telemann) hasta nuestros días (García Abril). Un concierto multidisciplinar patrocinado por la BBK, que se enmarca dentro del ciclo Música a Escena.

## Fausto
25 de febrero

Dentro del ciclo de conciertos "Música a escena", el Arriaga acogía una nueva visión de "Fausto", creada por el guionista Luis Gago. El actor Emilio Gutiérrez Caba desentrañaba la historia de este mito literario, acompañado de soprano, tenor, barítono y piano, bajo la dirección escénica de José Antonio Gutiérrez. Patrocinado por la BBK.



*La Pasión según Don Quijote.*

## La Pasión según Don Quijote
urtarrilaren 14a

Juan de Udaeta-ren zuzendaritzapean Slovack Sinfonieta-k barrokotik hasi (Telemann) eta gaur egunera bitarteko (García Abril) musika-zati hautatuak interpretatzen zituen bitartean, hainbat argazki-sekuentzia proiektatu ziren pantaila batean. Hitz bitan esateko, kontzertu multidiziplinarra izan zen BBKk babestuta "Musika Agertokira" zikloaren barnean eskaini zitzaigun hau.

## Fausto
otsailaren 25a

"Musika Agertokira" kontzertu-zikloaren barnean, Luis Gago gidoilariak sortutako Faustoren ikuspegi berri bat eskaini zuen Arriagak. Emilio Gutiérrez Caba aktorea izan zen literaturako mito honen protagonista, sopranoak, tenorrak, baritonoak eta pianoak lagunduta, eta José Antonio Gutiérrez agertoki-zuzendariaren aginduetara. BBKk babestutako kontzertua.



*Fausto.*

## La rebelion de los criados
1 de abril

"La rebelión de los criados" es un espectáculo confeccionado a base de fragmentos operísticos de Pergolesi, Mozart y Rossini. Los actores José Truchado y Blanca Portillo, acompañados por cuatro cantantes y por la Filarmónica de Transilvania, crearon un verdadero juego escénico, bajo la dirección de Gustavo Tambascio. Dentro del ciclo Música a Escena y patrocinado por la BBK.

## El duende, la molinera y el corregidor
20 de mayo

El guionista y director de escena José Antonio Plaza ha concebido un montaje basado en las piezas "El corregidor y la molinera" y "El amor brujo" de Manuel de Falla, interpretadas por la Bilbao Philarmonia, dirigida por Juan de Udaeta. La bailarina Aida Gómez y la cantaora Ginesa Ortega se apoyaron en proyecciones audiovisuales para concebir un montaje de gran plasticidad. Dentro del ciclo Música a Escena, patrocinado por la BBK.



*La rebelión de los criados.*



*El duende, la molinera y el corregidor.*

## La rebelion de los criados
apirilaren 1a

"La rebelión de los criados" Pergolesi, Mozart eta Rossiniren opera-zatiekin osatutako ikuskizuna da. Jose Truchado eta Blanca Portillo antzezleek, lau abeslariz eta Transilvaniako Filarmonikaz lagunduta, benetako agertoki-jokoa sortu zuten Gustavo Tambascio-ren zuzendaritzapean. "Musika Agertokira" zikloaren barrukoa eta BBKk babestutako ikuskizuna.

## El duende, la molinera y el corregidor
maiatzaren 20a

Gidoilari eta eszena-zuzendaria den Jose Antonio Plazak Manuel de Fallaren "El corregidor y la molinera" eta "El amor brujo" piezetan oinarritutako muntaia antolatu du, Juan de Udaetak zuzendutako Bilbao Philarmoniak interpretatua. Aida Gómez dantzariak eta Ginesa Ortiz kantaorak plastizitate handiko muntaia prestatu zuten, ikus-entzunezko proiekzioekin lagundua. Hau ere, "Musika Agertokira" zikloaren barruko eta BBKk babestutako ikuskizuna izan zen.

## Concierto barroco (Musica Aeterna)
11 de octubre

Una cita inexcusable para los amantes de la música barroca fue el concierto que ofreció la formación Musica Aeterna en el Arriaga. Utilizando instrumentos originales del siglo XVII y XVIII, el grupo de cámara interpretó piezas de Georg Philip Telemann, J. M. Leclair y Antoine Dauvergne, componiendo un programa de lujo.

## Kontzertu barrokoa (Musica Aeterna)
urriaren 11a

Musika barrokoaren zaleentzat ez galtzeko moduko zita izan zen Musica Aeternak Arriagan eman zuen kontzertua. XVII eta XVIII. mendeko jatorrizko instrumentuak erabiliz, ganbera-taldeak Georg Philip Telemann, J.M. Leclair eta Antoine Dauvergne-ren lanak interpretatu zituen, benetan luxuzko programa osatuz.



*Musica Aeterna.*



*Zamalzain.*

## Zamalzain (musical vasco)
1 de febrero

El director Jean Dominique Espil presentaba en Bilbao Zamalzain, dirigido escénica y musicalmente por Didier Kimmoun y Karlos Jiménez, respectivamente. El musical, con coreografía de Catherine Arçanuthurry, cuenta la historia de amor entre un joven dantzari suletino (el Zamalzain) y una aragonesa que viene a bailar con ocasión de las fiestas de Mauleón.

## Zamalzain (euskal musikala)
otsailaren 1a

Jean Dominique Espil zuzendariak Zamalzain aurkeztu zuen Bilbon, eta Didier Kimmoun eta Karlos Jimenez izan zituen eszena-zuzendaria eta musikakoa hurrenez hurren. Catherine Arçanuthurry-ren koreografia duen musikalak dantzari zuberotar baten (Zamalzain) eta Mauleko jaietara dantzatzera datorren Aragoiko neska baten arteko maitasun-istorioa kontatzen du.

## Kepa Junkera
28 y 29 de marzo

El músico vasco más internacional, acreditado con dos Discos de Oro y nominado a los premios Grammy, escogía el Teatro Arriaga para grabar en directo un doble C.D., resumen de sus 20 años sobre los escenarios. Tres días de concierto con lleno casi absoluto (99,6% del aforo), en los que el virtuoso de la trikitixa contó con colaboradores de lujo como Ibon Koteron, La Bottine Souriante, el coro Donostia, el cuarteto Bulgarka o Alos Quartet, entre otros.



*Kepa Junkera.*

## Lluis Llach
13 de abril

El cantautor catalán que apeló con su música a la solidaridad y libertad durante la transición democrática volvió a Bilbao, al Arriaga, casi 30 años después de un concierto mítico en el pabellón de los deportes de la Villa. Muchos de los que allí estaban seguramente no se habrán perdido un recital lleno de nostalgia en el que Lluís Llach presentó su último trabajo, "Jocs".



*Lluis Llach.*

## Kepa Junkera
martxoaren 28a eta 29a

Euskal musikalari nazioartekoenak, bi Urrezko Disko dituenak eta Grammy sarietara nominatua izan zenak, Arriaga Antzokia aukeratu zuen C.D. bikoitz bat grabatzeko, agertokien gainean eman dituen 20 urteotako laburpen gisa. Hiru egunetan izan ziren kontzertuetan (antzokiak % 99,6ko aforoa izan zuen) trikitixaren birtuosoak Ibon Koteron, La Bottine Souriante, Donostiako abesbatza, Bulgarka laukoteak edo Alos Quartet izan zituen lagun, besteak beste.

## Lluis Llach
apirilaren 13a

Kantautore kataluniarra, trantsizio demokratikoan zehar elkartasunari eta askatasunari abestu ziona, Bilbora itzuli zen, Arriagara, Hiriko kirol pabiloiko kontzertu gogoangarri hura eman eta ia 30 urtera. Kontzertu hartan izandako asko izango ziren dudarik gabe Lluis Llach-ek bere "Jocs" azken lana aurkeztu zuen nostalgiaz betetako kontzertu honetan.



*Luis Eduardo Aute.*

## Luis Eduardo Aute
22 de mayo

